



**Saltoki hutsen poltsa
osatu dute Udalak
eta jabeek**

**Kiroldegiko igerileku
berritua, irekitzear**

**Ostiral honetan
kontzertu gaua Sutegin
Etxe eta Ibai Marinekin**



**Txikien jai handiena
Gipuzkoako eskola txikien festa
ospatuko dute igande honetan Aginagan**



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO



**Jantzi kolorez zure etxe,
balkoi zein lorategia!**



URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



udajolas 2019

Udajolaseko guraso bilera
ekainaren 13an (osteguna)
izango da **Sutegin**,
arratsaldeko **17.00etan**



Albiste irudituan

Larrialdi klimatikoa ezartzeko deia

“Sufritzen ari garen hondamendi ekologikoa geldiarazteko”, larrialdi klimatikoa deklaratu eta maiatzaren 26ko hauteskunde ostean agintean izango direnei neurri eraginkor eta sakonak hartzea eskatu zien maiatzaren 24an mundu mailan mobilizatu zen Fridays For Future ikasleen mugimendua. Baita Euskal Herrian ere, besteak beste Donostian. Gizarteari berriz, gai honetan bat eginda egon behar dugula gogorarazi zieten.

Mundu osoan hainbat mobilizazio egin ziren egun osoan zehar; Donostian arratsaldean elkarretaratzea egin zuten Alderdi Ederren eta segidan manifestazio hiriburu erdigunetik barrena. GuraSOS, Errausketaren Aurkako Mugimendua, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldea, Eguzki edota Greenpeace batu ziren deialdira, “lotsagarria, errausketa = kli-



Maiatzaren 24an, Fridays For Future ikasleen mugimendua mobilizatu zen mundu mailan.

ma aldaketa” edota “Osasuna arriskuan? Inolaz ere ez!” gisako aldarriekin. Manifestazioan zehar etenik gabe adierazi

zuten, “gure etxea sutan dago”, “larrialdi klimatikoa orain”, edota “B planetarik ez dago” gisako oihuak.

Laburrean

Ekainaren 15ean osatuko da udalbatza berria

Udalbatza berria datorren astean osatuko da. EH Bilduk zortzi ordezkari izango ditu, EAJ-PNVk lau eta PSE-EEk 1. Hautatuak izan diren zinegotziek ekainaren 15ean hartuko dute kargua eta ondoren alkate berria izendatuko da.

Argazki erakusketa Artzabalen

Iñaki Agirresarobe Arzallusek Zube-roako maskaraden inguruko argazkiak ipini ditu Artzabalen ikusgai. Ekainaren 1ean zabaldu zuen erakusketa eta hilaren 16ra bitarte egongo da bertan ikusgai.

Hauteskunde osteko EH Bilduren batzarra

Datorren astearterako (ekainak 11) iragarri du koalizioak saioa. 19:00etan izango da Potxoenean. Aipatu hitzorduan, hauteskunde osteko gaineko balorazioa egingo dute. Eta aurrera begirako bi gai hauei helduko diete: udal osaketa eta EH Bildu.

noa

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaueus ||| www.noaueus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaueus

Banaketa: Iñaki Irastusta, Jon Galbete.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaueus



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Imanol Ubeda

(Elkar)lanean hasteko garaia heldu da

Hauteskunde kanpainak bukatzearekin bat amaitu zen promesak egiteko garaia. Botoa emateko eguna iritsi zenean, herritarrek euren hautua egin zuten. Emaizta: duela lau urtekoaren parekoa.

Lehen ondorioa begibistakoa da. Xabier Arregik gidatu duen udal gobernuaren kudeaketa ontzat eman du gehiengoak. Eta aurrera begira, bide beretik jarraitzeko borondatea agertu du.

Jeltzaleek eta sozialistek gora egin dute, modu apalean izan bada ere. Euren hautesleek konfiantza berretsi duten seinale.

Esan dugu. Promesak egiteko epea atzean geratu zen, herritarrek euren hautua egin zuten eta orain lanean hasteko garaia heldu da. Edo elkarlanean. Zergatik ez?

Azken hamarkadetakako giro politikoa ez da batere samurra izan eta botila erdi hutsik ikusteko arrazoi ugari zeuden. Zorionez, giroa baretzen joan da eta orain botila erdi beteta ikusteko arrazoiak ditut. Azken asteotan NOAUA!n irakurritakoak eraman nau baikortasun moduko honetara. Baina ez naiz borondate kontuaz bakarrik ari. Hiru alderdi nagusien hautes-programetan bateragarri diren proposamenak daudela esango nuke.

Diferentzietan hasiko naiz. Usurbilgo EH Bildu eta EAJ-PNV-ren hautes-programak eskutan, bi dira salbaezinak diruditen gaiak. Hondakinen kudeaketari lotuta dago bat; hezkuntza arloari dagokio bestea.

Alderdi jeltzaleak onartzen du "Usurbil aitzindari izan dela hondakin bilketan", baina sistema berraztertzea proposatzen zuen hautes-programan. "Modu eraginkor eta merkeago" baten alde dago Josune Urkolak gidatzen duen alderdia. Udal aurrekontua merketuko lukeena, zehaztapen gehiagorik eman gabe. Bosgarren edukiontzia ezartzeaz ari da akaso?

EH Bilduk ordea, eredutzat du egungo bilketa sistema. "Herri-konpromisoari esker, %85eko gaikako bilketa lortu dugu, eta Usurbil 0.0 programaren helburuei erreparatuz, are bikainagoak izango dira emaitzak", hala zioen Agurtzane Solaberrietak NOAUA!ri eskainitako elkarrizketan. Emaiztak eskuetan eta erraustegia muturren aurrean, ez dirudi EH Bilduk atez atekoa bertan behera utziko duenik. Alderantziz.

Euskal eskola publikoarentzat lur eremu bat zehaztu eta erreserbatzea eskatzen du EAJ-PNVk. Ez da berria. Aurretik ere antzeko eskakizunik egin du. Sozialistak ere iritzi berekoak izan dira beti. EH Bilduk ordea, ez du horren premiarik

ikusten. Oraingoz ez behintzat.

Bi kontu horiez haratago, adostasunerako eremu zabalak ikusten ditut. EH Bilduk, EAJ-PNVk eta PSE-EEk egin dituzten gainerako proposamenak zerrendatu ditut. Ez ditut alderdika antolatu. Nahita. Ahaztu ditzagun siglak une batez. Hauek dira batzuk eta besteek eginiko proposamenak: "Usurbilgo sarrera nagusia berantolatzea, auzoetako irisgarritasuna hobetzea, jarduera ekonomikoa bultzatzea, auzoak bertaratzea, errepideetako nahiz tren eremuetako puntu beltzak konpontzea, landa eremuetako bizi kalitatea hobetzea, kirol instalazioen gabeziari erantzun bat ematea, bizikidetzat lantzea, autobus geltoki berria egitea, mugikortasuna hobetzea, Emakumeen Etxea sortzea, Txirikorda egitasmoa (belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioa) bideratzea, Udal eta auzoen arteko harremana iraunkortzeko tresnak garatzea, aniztasunetik Usurbil kohesioztatzea, kalitatezko enplegua sustatzea, berdintasunaren aldeko programak bideratzea, eraginkortasun energetikoarekin benetako konpromisoa hartzea, turismo-jarduera jasangarria bultzatzea, tokiko saltoki txikiak laguntzeko planak ezartzea, gizarte-politikei lehentasuna ematea, garraio publiko jasangarri baten aldeko

apustu egitea...".

Proposamenak banan bana hartzen baditugu, zentzudunak dirudite denak. Komunitate osoarentzat onuragarri. Alegia, neurri hauetako asko eta asko adostasunetik bideratzeko modukoak direla.

Ez gara isolatuak bizi, ordea. Neurri hauetako asko martxan jarri ahal izateko, Foru Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren onespina beharko litzateke. Baina gainontzeko instituzioetara konplizitate bila jo aurretik herri mailan aliantza sendo bat eratuko balitz, bide erdia egingo da.

Ez naiz berria. Badakit gauzak ez direla hain sinpleak. Disneyk erakutsi izan dizkigun amaiera zoriontsuak soilik zinema pantailatan ematen direla. Errealitatean askoz konplexuagoa dela dena. Horren jakitun naiz. Alderdietan eta instituzioetan. Errazena ere konplikatzen joera dugulako gizakiok. Urrutira joan gabe, gure etxeko portalean txorakerietan katramilatu izan gara maiz. Ez aurrera ez atzera. Pentsa. Dena den, udal ordezkari berriek halako borondatea erakutsi dute. Inpresio hori hartu nuen aurreko astean eskaini zizkiguten balorazioetan. Denborak esango du. Legealdia emankorra bezain arina izan dadila behintzat.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegozo | Aritz Gorriti | **Imanol Ubeda** | Garazi Lizaso Manterola | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Bost kale izen berriek inguratuko dute Ugartondoko urbanizazioa

Hasi dira lurra mugitzen Ugartondon, abiatu dituzte etorkizunean Haur Eskola ondoan kokatuko den urbanizazio berria eraikitze lanak. Orain ez dagoen auzune berria sortuko da etorkizunean. Eta horrekin kale berriak sortu eta inguruko zenbait kaleren izenak aldatuko dira. Herriko kale izendegian aldaketok txertatu eta eguneratzea onartu zuen udalbatzak maiatzaren 23ko osoko bilkuran, gehiengo osoz, EH Bilduren aldeko bozkekin. EAJ eta PSE abstenitu ziren.

Kaleen izenak toponimiari edota lanbideei lotutakoak izango dira. Haur Eskolara igotzeko aldapak bertan dagoen baserri izena hartuko du, Ugarte. Haur Eskolatik ezkerretara biratuta sartuko garen kaleak Arponari. Hortik Pikaola lur eremura helduko garenez, Alkartasuna Kooperatiba egoitza ohiaren atzealdea zeharkatuko duen kaleak Pikaola izena hartuko du. Eta Pikaolatik Puntapax aldera jaisteko kaleak Lakizar. Urbanizazio berriaren



Kaleen izenak toponimiari edota lanbideei lotutakoak izango dira.

PLAKA BERRIAK KALEETAN

“70 bat identifikazio-plaka jartzera doa Usurbilgo Udala herriko kaleetan, etxe atari eta helbideak errazago aurkitzeko”

baitan, Pikaolarekiko paraleloa izango den kale berri bat ere sortuko da; Latsari izenekoa.

Kale izen berri hauek orain arte hor zeuden zenbait etxebizitzetan eragin zuzena izango dute. Orain arte Kalezar sakanatuak helbidea zuten etxebizitzotako bizilagunek etxeko helbidea berri beharko dute.

Kale izenen plakak

70 bat identifikazio-plaka jartzera doa Usurbilgo Udala herriko kaleetan, etxe atari eta helbideak errazago aurkitzeko. Udaletik ohartarazi dutenez ordea, horretarako bizilagun komunitateen baimena behar da, eta baimen eske, gutunak igortzekoa da Udala. Bi hilabeteko epea izango da baimenak emateko. Plakak kokaguneen azterketa eta aukeraketa lana egina du Udalak. Udalak kontrataturiko GIROD lantegiak kokatuko ditu plakak. “Plakak jartzekoan kalteren bat sortuz gero, Udalak hartuko du bere gain erantzukizuna eta konponketa”, ohartarazi du Udalak.

Aldaketa, Zumarteren egoitza birgaitzeko obra kontratuan

Kale Nagusia zeharkatzen baduzue jabetuko zarete, Zumarte Musika Eskolaren egoitza handitu eta berritzeko lanak aurrerabidean dira. Construcciones Moyua SL enpresari esleitu zion Udalak obra kontratua, BEZ-a barne ia bi milioi eurotan. Maiazaren 23ko udalbatzaren osoko bilkuran berri eman zuten ordea, “kontratuaren exekuzioan zehar sortu diren beharrak direla eta” lanak hastean, antza, enpresa

eraikitzaileak Villa Pilarreko hormak uste baino egoera okerragoan aurkitu zituzten -Obra Zuzendaritzak prezio kontraesankorrak onartzeko proposamena egin zion Udalari. Alegia, iaz aipatu enpresari ia 1.981.219,02 eurotan esleituriko obra kontratuaren gastuari 58.623,91 euroko gastua baimentzea eta horrekin batera, kontratuaren bermea handitzeko 10 eguneko tartea ematea. Gehiengo osoz onartu zuen proposa-



Villa Pilarreko hormak uste baino egoera okerragoan zeuden.

mena udalbatzak, EHBildu eta EAJ-ko udal ordezkarien babesarekin. PSE abstenitu ziren.

Usurbilgo Udalaren lan eskaintza

■ Lanpostua: Lan kargak sortutako udal brigadako 2 peoi.

■ Lanaldia: Osoa.

■ Ezinbesteko-baldintzak: Eskola-ziurtagiria eta gidatzeko B baimena. Euskarazko 1. hizkuntza-eskaki-zuna.

■ Eskaerak aurkezteko epea: ekainaren 7a ostirala, eguerdiko 14:30ak baino lehen.

■ Froga praktikoa egongo da. Hizkuntza froga ere egongo da, titulua ez daukatentzat. Udalaren webgunean argitaratuko dira noiz izango diren.

■ Apuntatzeko: Lanbiden (difusioan jarriko da lan eskaintza) edo Udal erregistroan (Eskaera orriak egongo dira).

■ Lan poltsa osatuko da eta sortutako lan karga eta ordezkapenak egiteko erabiliko da.

Ekainaren 13an, Udajolasi buruzko bilera Sutegin

Udaleku irekiak uztailearen 3tik 30era egingo dira, astelehenean ostiralera, 9:30-13:30 artean. Udajolasi buruzko argibide gehiago emango dira ekainaren 13an arratsaldeko 17:00etan Sutegin auditorioan. Gurasoei zuzenduta dago bilera.

4-12 urte arteko 177 gaztetxok izena eman zuten Udajolasen. 200 lagunentzako lekua zegoenez, izen emate guztiak onartuak izan ziren.



177 gaztetxok eman zuten izena Udajolasen.

Saltoki hutsen poltsa osatu dute Udalak eta jabeek, herri komertzioa sustatzeko

Lokal hutsen poltsa publiko osatzeko ekimenak helburu argia du; hutsik diren lokalak dinamizatu eta jarduera ekonomiko berriak sustatzea, eta jarduera berriren bat abiatu nahi duenari bere proiektua gauzatzeko lanak erraztea. Poltsa hau osatzeko hitzarmena sinatu dute Udalak eta 13 jabeek.

Hitzarmena, Beterri-Burun-tzako Udalak sustatzen ari diren Guztion Egitasmoa proiektuaren eta herri honi dagokionez, Udala herri-komertzioa bultzatzeko garatzen ari den Usurbil Zabalik programaren testuinguruan kokatzen da. Aipatu moduan, herrian jarduera ekonomikorik ez duten, edo beste modu batera esanda, hutsik diren lokal komertzialen poltsa publikoa osatu nahi da. Momentuz, 13 jabeek eman dute izena. Baina hutsik duten lokalen jabeek soilik ez, enpresa proiektu bat duten ekintzaileei ere zuzendua dago.

Poltsa publiko honekin, "battetik, jarduerarik gabeko lokala alokairuan edo salgai jarri nahi duten lokal-jabeek zerbitzu hau erabiltzea, eta, bigarrenik, Usurbilen enpresa proiektu bat garatzeko lokal baten beharra duten ekintzaileei erabilgarri dauden lokalei buruzko informazioa eskaintzea" da asmoa.

Biniloa eta web orria

Udalak lokal hutsen jabeen eta



Poltsa hau osatzeko hitzarmena sinatu dute Udalak eta 13 jabeek. Argazkia: Usurbilgo Udala.

LOKAL HUTSEN POLTSAK

"Enpresa bat garatzeko lokal baten beharra duten ekintzaileei informazioa eskainiko die poltsa honek"

merkatal egitasmo bat gauzatu nahi duten ekintzaileen arteko zubi-lana egingo du, "eta informazio guztia Usurbilgo Udalaren webgunean jasoko da. Hau da, informazioa zabaltzeko tresna nagusia webgunea izango da".

Horrekin batera, poltsa honetan izena ematen duten lokal hutsetan "Usurbil Zabalik" biniloa jarriko dute jabeek. Beste zeregin bat ere izango dute: "2019ko martxoan egingako lokal hutsen azterketetan jasotako eta webgunean ageriko den informazioari eragiten

dion edozein aldaketaz Udala informatzea, webgunean ahalik eta informazio eguneratuena izateko helburuz". Udal web orrialdean gai honekin atal berezitu bat sortuko duela iragarri du Udalak.

Bai herrigune zein auzoetako jarduera sozioekonomikoa berreskuratu edo sustatzeko, eta honenbestez, tokiko merkataritza eta zerbitzuen eskaintza indartzeko elkarlanean garrantzia azpimarratzen du Udalak.

Diru-laguntza deialdia

Hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzailearentzat lokalaren alokairurako dirulaguntza deialdiaren ebazpena ere plazaratu zuen Udalak maiatzaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Eskatzaile bakarra egon da.

Jaietako zikiro janerako txartelak salgai

Abiada bizian saltzen direnez, adi ondoko oharrari. Datozen Usurbilgo jaietako euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko zikiro janerako txartelak ostiral honetan bertan (ekainak 7) jarriko dituzte salgai antolatzailleek. Txartelak ohiko lekuetan, Aitzagan, Txiribogan eta Bordatxon eskuratu ahaliko dituzte 25 eurotan, 15 eurotan langabetu eta ikasleek. Antolakuntzak ohartarazi duenez, "txartelak ezingo dira itzuli ekainaren 28tik aurrera". Ekainaren 28tik uztailaren 2ra ospatuko diren Usurbilgo jaietako zikiro jana, hilaren 29an ospatuko da, larunbatez, 14:00etan Askatasuna plazan.

Kalezarko oilasko biltzaileen bazkaritarako txartelak

Ekainaren 21etik 24ra ospatuko diren Kalezarko festen baitan, Oilasko Biltzaileen Eguna ospatuko dute San Joan bezperan, hilaren 23an. Goizeko oilasko biltzaile txikien irteera, bazkari batekin borobilduko dute eguerdian.

Kaffan eskuragarri

Adi, txartelak aurrez eskuratu beharko dira Kaffa kafetegian, Kalezarko Jai Batzordetik iragarri dutenez; ekainaren 12tik 20ra bitartean.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Maskaradaz jantziko zaigu Usurbil, ekainaren 16an

Maskarada Eguna ospatuko du Usurbil-ek datorren astean. Hego Euskal Herrian, xiberotarrak ohiko denboraldiz kanpo eskainiko duten emanaldi bakarra izango da.

Usurbila etortzeko proposamena luzatu izan diete xiberotarrei, hara bisitan joan izan ohi diren herritarrek. “Gustura etorriko lirakeela erantzuten ziguten”, baina data finkatzeko uzten zuten. “Urte amaiera baino lehen osatua zuten Urdiñarbekoek haien agenda, nahi bagenuen etorriko zirela zioten. Usurbilgo jaiak aipatzen zituzten, baina guk maskaradak aparteko bere eguna behar zuela genion, jaien aurretik”. Eta hala finkatu zuten ekainaren 16ko hitzordua.

Antolaketa lanetara batu den herritarren bilgunetik NOAUA!ri gogorazazi diotenez, ez da izango herri honek biziko duen lehen maskarada. “Muxkildikoak bitan izan dira eta Sohütakoak baita. Honakoa gutxienez, laugarren maskarada izan liteke”.

Bi zatitan banatuko da Urdiñarbeko eskutik biziko dugun jaialdia. Goizean harrera egingo zaie udaletxean, kalejira eta bidea ixteko baliatuko dituzten barrikadak izango dira. “Hiru geldione eginez dantzariak, txorrotzak, koplak kantari bezala” ariko dira. Arratsaldean, “antzezpena izaten da herriko bitxikeriak txertatuz, bi ordu inguruko saioa”. Emanaldiak “umorea, kritika, satira... tartekatzen ditu”. Arte diziplina ezberdinak: musika, dantza, antzerkia, kantua. “Ikuskitzen oso bat da”, antolatzaileek nabarmentzen dutenez. Parte hartzailea. “Istorioak barruan sentiarazten du publikoa. Antzezleen eta publikoaren ha-



“Muxkildikoak bitan izan dira eta baita Sohütakoak ere. Honakoa gutxienez, laugarren maskarada izan liteke”, antolatzaileek aditzera eman digutenez.

remana oso hurbilekoa da. Publikoa edozein unetan atera daiteke dantzara”. Pertsonaia ezberdinek parte hartuko dute maskaradan. Tartean, adi, Pitxu, “gordeta ibiltzen den pertsonaia”.

Halere maskarada bera eskaintzetik haratago joateko baliatu nahi lukete eguna. “Maskarada, ekintza bezala gustura antolatzen dugu baina zerbait gehiago atera nahi dugu usurbildarrok”. Urdiñarbe eta Usurbilen arteko elkar ezagutza, eta harremanak sendotzea esaterako, urrun geratzen zaigun herria gerturatzea, ezagutzea, “askotan egiten ditugu eta dantzak jakin gabe nondik datozen eta zer diren. Dantza horiek erakusteko baliatu behar da egun hau”.

Usurbildik bitan Urdiñarbera

Maskarada zer den girotzen eta informatzen joateko, antolatzaileetako baten, Iñaki Agirresarobe herritarren gaitz honi buruzko argazki erakusketa bisita dezakezue egunotan Artzabalaren. “12 argazki jarri ditut eta testu txiki bat kokatzeko zein den pertsonaia bakoitza, zer funtzio duen...”.

Xiberotarrak gure artera heldu aurretik usurbildarrak izango dira hara joango direnak. Bitan gainera. Asteburuan Orbeldi Dantza Taldekoak, azken urteotako ohitura biziberrituz,

Urdiñarbeko Musikaren Egunean parte hartuko dute.

Usurbilgo Maskarada Egunaren bezperan aldiz, Euskal Kantu Taldeak Maule eta Urdiñarbe artean ospatuko den Euskal Herria Kantuz Egunera irteera antolatu du.

Maskarada Egunera bidean

Ekainak 1-16

Iñaki Agirresaroberen “Zuberoako maskaradak” argazki erakusketa Artzabalaren.

Ekainak 7-9

Azken Musikaren Eguna Urdiñarben. Orbeldi D.T.-ren parte hartzea.

Ekainak 15, larunbata

8:30 Usurbilgo Euskal Kantu Taldearekin Maule-Urdiñarbeko (Zuberoa) Euskal Herria Kantuz egunera egunpasa autobusez Oiarde Kiroldegi ataritik. Izen emateko hartuemanetan jarri Kantu Taldekoekin. Astelehenean biltzen dira 18:00-19:00 artean, Agerialdeko musika gelan.

Ekainak 16, igandea:

Urdiñarbeko maskarada Usurbilen

11:45 Harrera Udalaren aurrean.
12:30 Barrikadak kalerik kale.
14:00 Azken ekitaldia Mikel Laboa plazan.
14:30 Bazkaria.
16:30 Ekitaldi nagusia pilotalekuan.

Zirimaran izen emateko garaia

Ikasturte amaierako festa eta 2019-20 ikasturterako matrikulazio garaia batera datoz egunotan, Zirimara aisialdi taldekoen eskutik:

Ekainak 6, osteguna: ikasturte amaiera

■ 18:00 Jolas erraldoia haur eta gurasoentzat frontoian.
■ 18:45 HH5, LH1-2ko gurasoekin balorazio saioa. LH 3-4 haur eta gurasoentzako argazki emanaldia.
■ 19:15 LH1-2ko haur eta gurasoentzako argazki emanaldia eta LH 3, 4, 5eko gurasoekin balorazioa.

Oharra: Argazki emanaldiei begira, “bi adin tarteetako seme-alabak baldin badituzue, txanda bat aukera ezazue guztiarekin batera egon ahal izateko”.

Ekainak 7-14: matrikulazioa

Oharra: Udarregi Ikastolan ez dauden gaztetxoek izen ematea eskolakirola@udarregi.eus helbidetik bidera dezatela.

LH 1-4

Zirimara. Edukiak: psikomotrizitatea, kaleko jolasak, jolasak naturan, autokudeatutako jolasak, gorputz adierazpena, kooperazio jolasak, aurre-kirolak.

■ Ordutegia: 16:30-18:30. Astearteetan LH 1-2; ostegunetan LH 3-4. Astearte eta ostegunetan LH 1-4.

LH 5-6

■ Ostegunetan 16:30-18:30 artean, Zirimara: gorputz adierazpena, autokudeatutako jarduerak, malabarrak, skate, patinajea, bizikleta, eskalada, boleibola, eskubaloia, badminton, pala. Zirimara: Astelehenean eta ostegunetan, 16:30-18:30 artean: Zirimara + futbola-eskubaloia. Zirimara: Astelehenean 16:30-18:30 artean: futbola-eskubaloia, lau hilabete kirol jarduerak bakoitzean.

Oinarrizko Lanbide Heziketa, ziklo ikasketa bat baino gehiago

Atallun, Alkartasuna Kooperatibaren alboan kokatua dagoen Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuak zabalik du ekainaren 14ra arte, 2019-20 ikasturterako aurrematrikulazio epea. Gogoan izan, ezinbestekoa da orain aurrematrikulatzea geroago matrikulatu ahal izateko.

Bi ziklo ditu aukeran, 15-17 urte arteko gazteei zuzendutako hezkuntza eskaintzak. Baina era berean, ziklo baten lanketatik haratago doa Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuaren eskaintza. Hemen xehetasunak:

Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketako

Udal Institutua

Zikloak

- Oinarrizko Lanbide titulua sukaldaritza eta jatetxe arloan.
- Oinarrizko Lanbide titulua ile-apainketa eta estetika arloan.

Zikloen iraupena

- Lehenengo ikasturtea: 990 ordu.
- Bigarren ikasturtea: 1.100 ordu (enpresetan praktikak: 260 ordu).
- Guzтира, 2.000 ordu.



Ekainaren 14ra arte egongo da aurrematrikulazio epea zabalik.

Zikloen antolaketa

- 1. ikasturtea: 2019 iraila-2020 ekaina. Astelehenetik ostiralera. 08:30-14:30.
- 2. ikasturtea: 2020 iraila-2021 martxoa. Astelehenetik ostiralera. 08:30 - 14:30 // FCT. Praktikak enpresetan, martxotik maiatzera (260 ordu).

Bete beharreko baldintzak

- 15 (salbuespenez), 16, 17 urte bitarteko gaztea izatea.
- DBH graduatua ez izatea (DBH3 egina edo/eta salbuespenez DBH2 egina).

Zikloaren helburuak

- 1.- Oinarrizko Lanbide Heziketa titulua.
- 2.- DBH titulua. Graduatua lortzeko aukera.

- 3.- Erdi mailako zikloetara sarbide zuzena (edozein espezialitate).
- 4.- Lan-munduratzeko. Profesionaltasun ziurtagiria, 1.

Berezitasunak

- 1.- Eskola txikia da.
- 2.- Talde txikietan lana egiten da.
- 3.- Leku atsegina, elkar ezagutzeko aukera ematen duena.
- 4.- Ikasleen atentzio-indibidualizatua ziurtatua dago.
- 5.- Ikasle bakoitzari helburu pertsonalak jarri, jarraipena egin eta ebaluatzen zaie.
- 6.- Inguru goxo bat sortzen saiatzen gara.
- 7.- Gertutasuna adierazten saiatzen gara.
- 8.- Konfiantza boto bat ematen

diegu.

- 9.- Gaztearengan sinestut. Pertsona bezala, gaitasunak-ahalbideak dituela adierazi eta ekintzen bitartez beraierengan konfiantza dugula transmititzen diegu.
- 10.- Gazte bakoitzaren ahalbide eta gaitasun positiboak azaleratu eta berak nahi ezkeredozer lortu dezakeela azaltzen diegu.
- 11.- Gazteari eskolako ardura batzuk ematen dizkiegu.
- 12.- Eskolan sortzen diren gertaeretan parte hartzeko eskubidea ematen diegu: ikasleen ordezkari, ikasleen ordezkariorde, ikasleen bilera orokorrak,...
- 13.- Programako partaide senti araztea. Beraien hitzak eta ekintzak indarra dutela adierazten diegu.
- 14.- Auto-estimua landu. Bere burua ahalduntzen saiatzen gara.
- 15.- Familiarekin harreman estua, gertukoa izan ohi dugu.
- 16.- Irakasle-hezitzaileen arteko koordinaketa estua ematen dugu.

Informazio gehiago bideotatik:

lhi@usurbil.eus
943 36 04 65
ohl.usurbil.eus

Aurrematrikulazio garaia Lanbide Heziketan

Aurtengoak berea egin ostean, 2019-20 ikasturtera begira dira jada ikastetxeak. Lanbide Eskola tartean. Zabalik dute ekainaren 14ra arte aurrematrikulazio kanpaina. Lanbide Eskolatik orain izen ematea derri gorrezkoa dela nabarmentzen dute, gero matrikulatu ahal izateko. Beste modu batera esanda, bi asteotan aurrematrikulazioa bideratzen ez duenak

ezingo du gero hurrengo ikasturterako matrikulatu.

Aurrematrikulazioa bideratzeko NAN agiria eta espediente akademikoa aurkeztu behar direla gogorarazten dute. Erdi eta goi mailako zikloak eskaintzen ditu Usurbilgo Lanbide Eskolak:

Erdi mailako zikloak

- Administrazio Kudeaketako

Heziketa Zikloa.

- Instalazio elektriko eta automatikoak.
- Mekanizatua.
- Bero sorrera instalakuntzak.
- Goi mailako sarbide ikastaroa.

Goi mailako zikloak

- Administrazio eta Finantzeta Heziketa Zikloa.
- Automatizazio eta Robotika Industrialia.

- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa.
- Fluido Instalakuntzen eta Instalakuntza Termikoen Mantenuan.
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energi termikoa.

Informazio gehiago:

lhusurbil.eus
943 364 600
eskola@lhusurbil.eus

OSASUN GIDA 2019



USURBIL OPTIKA

Bigarren lente pareta doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urrunekeo lenteetan

2 lente pareta doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

☎ 943 370 269 • 675 708 654



Irati Ibargoien FISIOTERAPIA - OSASUNA

ZERBITZU
BERRIA

PSIKOLOGIA

·Terapia indibidualak
·Mindfulness

PILATES TERAPEUTIKOA

·Indibiduala
·Taldetakoak

BESTE TERAPIA MOTAK

·Presoterapia



943 53 92 66 Puntapax 6B, behea ezk. USURBIL

FISIOTERAPIA

·Amatasun prestakuntza
·Zoru Pelbikoko tratamenduak

Lesioak: traumatologikoak, posturalak,
kirolekoak, ATM disfuntzioak, zoru pelbikoa...

Teknikak:

·Terapia Manual Ortopedikoa (TMO)
·Fisioterapia eta osteopatia Funtzionala
·Puntzio lehorra
·FIM [fibrolisis instrumental miofascial]

ZERBITZU
BERRIA

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 28/17



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



Lizarralde ORTOPEDIA

Kazkazuri 1 baxua, Oiarzun - 943 543 585/ 688 678 583
www.lizarraldeortopedia.eus

✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA

- ✓ Produktu ortopedikoen
alokairu zerbitzua
(oheak, aulkak, garabiak...)
- ✓ Arreta pertsonal eta
espezializatua

✚ Teknikari ortopeda kontsulta

👤 Aholkularitza

🏠 Produktu gama zabela

Kima

MASAJE LEKUA

·Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekaniko eta osteopatikoa

☎ 943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Öinutsik

podologia zentroa

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

OSTEOPATIA, KINESIOLOGIA
oinetatik

943 11 09 54 zubiaurrenea 2

Ikasleak aktore, Ikastola Egunaren atarian

Ikasturte amaiera festa giroan agurtuko du Udaregi Ikastolak, ekainaren 15ean, haur jolas, musika, dantza edota herri bazkari baten bueltan. Otordurako txartelak salgai izango dituzue ekainaren 6ra arte. Aurretik ordea, Ikastola Eguna giroa aldera, ikasleen sortze lanaz gozatzeko aukera izango da.

Jangela orduetan, bertsolaritza, xake edota antzerki ikastaroetan parte hartzeko aukera dute Udaregi Ikastolako ikasleek. Ixabel Agirresarobek zuzenduriko astelehen eguerdietako antzerki saioan, lan berri bat sortu eta ontzen aritu da 6-11 urte arteko ikasle talde bat azken hilabeteotan; "egun bat ikastolan" izenekoa.

"Beraiek sortutako istorioa da. Hori bultzatzen dugu", adierazi digute taldetik. Hila-betetotan landutakoa jendarean aurkezteko garaia heldu zaie. Asteartean (ekainak 11) 18:00etan Sutegin estreinaldi eguna.

Hurrengo ikasturtera begira da jada taldea. Segida emate-



Udaregi antzerki taldeak "Egun bat ikastolan" emanaldia eskainiko du hilaren 11n Sutegin.

EKAINAK 11 ASTEARTEA

6-11 urteko ikasle taldeak antzezlan bat eskainiko du Sutegin. "Beraiek sortutako istorioa da", Ixabel Agirresarobek adierazi digunez. 18:00etan hasiko da emanaldia

ko asmotan dira, eta Muxurbil Antzerki Taldearekin ere bat egitea planteatzen dabilta.

Ekainak 11, asteartea
18:00 Udaregi Ikastolako an-

tzerki taldearen emanaldia Sutegin: "Egun bat ikastolan".

Sarrerak doan, gonbidapenen bidez banatuko dira emanaldi egunean bertan.

Ekainak 14, ostirala

17:00 "Hondartzaren amaiera" antzezlan Olanoeneko anfiteatroan.

Ondoren, txokolate jana Askatasuna plazan.

Ekainak 15, larunbata:

Udaregi Ikastolaren Eguna
■ 08:30 Esnadeia herrian zehar,

herriko txistularien eskutik.

■ 09:00-12:00 Ikastola eta Oiar-do Kiroldegi inguruan jolasak ikasleentzat.

■ 12:00-12:50 HH-koen "Abere Festa" ikuskizuna Kiroldegian. Oharra: 11:40ean irekiko dira futbol zelaiaren aldeko ateak. Sarrera-txartelak bertan eman-goto dira. Sarrera libre izango da aforoa bete arte.

■ 14:00-19:00 Herri bazkaria frontoian. Txartelak ekainaren 6ra arte salgai ikastolako idazkaritzan. Hurbilago Elkar-teak sukaldaturiko menua:

-Haur eta gaztetxoentzat: makarroiak tomatearekin, oilaskoa saltsan, izozkia, ogia, ura.

-Helduentzat: itsas entsalada, oilaskoa saltsan, gazta krema eta azenario tarta, ogia, sagardoa/ ardoa/ura, kafea.

Oharra: Bazkarirako txartelak ekainaren 5etik 10era salgai.

Bazkalostean:

■ 15:30-16:00 LH5. maila. Musika saioa frontoian.

■ 16:00-17:00 Julen magoa Sutegi atarian.

■ 17:00-19:00 Alaken taldea, Muxikoak eta gehiago frontoian.

Ziklo aldaketaren atarian

Omenaldi kutsu handia izan duen ekitaldiarekin agurtu zitu- tuen Oriarte Usubil eta Lasarte-ko Institutuak, bigarren batxilergoko ikasketak amaitu eta bizitzako ziklo berri bat abiatzeko ikastetxea utziko duten ikasleak. Tartean, ondoko irudian duzuen zazpikotea: Iker Zaldúa Martin, Oier Arroio Ilarramendi, Ilargi Harto Flores, Peru Aranburu Leiva, Arantxa Orbegozo Sarasua, Ekain Salegi Urrestarazu eta Imanol Goenaga Oiarzabal.



Iker Zaldúa Martin, Oier Arroio Ilarramendi, Ilargi Harto Flores, Peru Aranburu Leiva, Arantxa Orbegozo Sarasua, Ekain Salegi Urrestarazu eta Imanol Goenaga Oiarzabalek bigarren batxilergoko ikasketak amaitu dituzte.

Ikasle talde hau aritu da Batxilergoa egiten Oriarte Institutuan. Amaitu dituzte ikasketak,

gerora unibertsitate batera edo bestera joateko ateak irekiko dizkien selektibitatearen atarian

dira jada. Agur festa antolatuzieten Institutuak, ikastetxea uztera doazenei, argazki proiekt-

zio, titulu banaketa eta luntx eder baten bueltan. Eta baikortasunez beteriko animu mezu artean. Donna Apellaniz Nieto hezitzaile eta emozio inteligentzia arloko formatzaileak hitzalditxo eskaini zien ikasleei. Selektibitatearen eta ikasketak ziklo berriaren atarian, datorrien garai aldakorraz gozatzeko mezua helarazi zien. "Tentsio hori bizi eta ahal den heinean gozatzeko esango nieke. Alderdi positibo heldu eta horiek ikusgarri egitea, norabide horretan borroka egitea, baina lasai hartu. Pauso handi bat da hau baina honako hau bizitzari heltzeko bulkada izan dadila".

#PRAKTIKATUetaBIZI

Zumetaren arte estudiora bisita

izena emateko azken eguna **ekainaren 13a**

607 609 379 edo 943 360 321 zenbakietara
edo idatzi usurbil@aeek.eus helbidera.



GUZTIONTZAT IREKIA!
ANIMA ZAITEZ!



EKAINAK 15, LARUNBATA
ORDUA: 10:00ETAN MIKEL LABOA PLAZAN
10:30EAN ZUMETA ARTE ESTUDIOAN
ONDOREN ...MOKADUTXO BAT EGONGO DA



ZUMETA ESTUDIOA

607 609 379 / 943 360 321

www.mintzalagun.blogspot.com

usurbil@aeek.eus

Mintzalagunak Gara | Facebook

Sustatzaileak



Usurbilgo Udala

aeek

Etumeta Euskaltegia

noaúa

www.noaúa.com

praktikatu
participando en
el aprendizaje



“Xua Gurasoekin Etxera” ekimena aurkeztuko dute ekainaren 22an

Hala iragarri zuen Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, euskal presoek eskubideen alde maiatzaren 31n Mikel Laboa plazan egin zuten elkarretaratzean.

Usurbildik 600 kilometrora segitzen dute preso Olatz Lasagasterrek, Patxi Urangak eta haien bi urteko haur Xuak, nahiz lege arrunta aplikatuta aspaldi kalean, baldintzapean aske Usurbilen behar zuten hirurek, Lasagabasterrek eta Urangak espetxe zigorraren hiru laurdenak beteak baitituzte jada. Hilabete honetan bertan 10 urte beteko dituzte espetxeratu zituztenetik. Egun, 2021eko ekainerako finkatua dute irteera data.

Lehenago, Olatz eta Patxiren



Aurreko ostiralean Olatz Lasagabaster zoriontzeko batu ziren.

haur Xuak hiru urte beteko dituzte 2020ko urtarrilean eta honenbestez, gurasoengandik urrunduko dute espetxetik irten beharko baitu. Hala gerta ez dadin exijitzeko, “Xuak hiru urte beteko dituenean bere gurasoengandik banatu ez dezaten exijitzeko”, datorren ekainaren 22an “Xua Gurasoekin Etxera” herri ekimena aurkeztuko dute Usurbilen.

Olatzen urtebetetzea

Aurreko ostiraleko mobilizazio amaieran Olatz Lasagabasterren urtebetetzea dela eta, bera zoriontzeko argazkia atera zuten. “Zorionak Olatz! Zer, sorgintxo horrek belarriak tiratu al dizkizu? Patxirekin batera ospatzeko modua izan duzue? Muxu piloa herritik!”, helarazi dizkiete usurbildarrek Olatzi.

Astebetean bi auto istripu

Istripu bana jazo da N-634 errepidean azken bi ostiralean. Maiatzaren 24an Troiatik Txikierrdira doan bide zatian, eta hilaren 31n Luzuriaga parean. Bietan kalte pertsonal nabarmenik izan ez arren, ibilgailuek izan zituzten kalteak. Usurbil zeharkatzen duen errepideko ohiko puntu beltzetan gertatu dira istripuok. Irudiaren egilea: Usurbilgo Udala.



Txikierrdin eta Luzuriaga parean izan ziren bi istripuak.

noaua euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noaua.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN
ZAITEZ!**
eta opari eder
hau eskuratu!



Bazkide-tza: urtean 40 euro.
Informazio gehiago: 943 36 03 21
elkartea@noaua.eus

ERREFUSAREN BILKETAREN EGUTEGI ZUZENA 2019

(ZUZENDU NOAUAKO EGUTEGITIK)

EKAINAK >>>>> 2, 16, 30

UZTAILAK >>>>> 14, 28

ABUZTUAK >>>>> 11, 25

IRAILAK >>>>>> 8, 22

URRIAK >>>>>> 6, 20

AZAROAK >>>>> 3, 17

ABENDUAK >>>>> 1, 15, 29



“Auzolan erraldoia izan da”

Ongi etorri, atek parez pare irekiak baitaude eskola txikian abestuz luzatu ziguten haurrek gonbita ekainaren 9an Aginagan ospatuko duten Gipuzkoako Eskola Txikien jaialdira, joan den astean egin zuten aurkezpen agerraldian. “Ateak zabalik” dituela ospatuko dute igandeko 32. edizioa. “Beste eskola txikietako ikasleak gonbidatu nahi ditugu. Ederki pasako dugu!”, adierazi zuten Anje Larburu eta Iraide Errasti eskolako haurrek.

Ildo beretik mintzatu zen San Praixku Guraso Elkarteare. “Eskola txikien proiektuan sinesten duen jende guztiari etortzeko gonbita luzatzen diegu”, zioen Amaia Bereziartuak. Mimo bereziz prestaturiko egitaraua aurkeztu zuen, laguntza eskaini eta eman duten norbanako, erakunde eta enpresak edota lanean arituko diren bolondres guztiak eskertzearekin batera. “Aginagako herri txiki batentzat sekulako erronka da tamaina honetako festari aurre egitea. Auzolan erraldoia izan da”, nabarmentzen zuen Bereziartuak. Aginagan duten eskolarekiko harrotasuna agertu zuen. Ezinbestekotzat jo zuen eskola bizirik eustea, “lotarako herri bihurtu ez dadin”. Herri barruko harremanak landu eta



“Guztion eskola eta denontzat irekia dagoena” aldarrikatuko dute igandean Aginagan.

AMAIA BEREZIARTUA

“Aginagako herri txiki batentzat sekulako erronka da tamaina honetako festari aurre egitea. Auzolan erraldoia izan da”

seme-alabak etxetik gertu heztereko ere beharrezkotzat jotzen zuen eskola.

Hezkuntza eskubidearen bermea

Hilaren 9an Aginagan batuko diren Gipuzkoako 26 eskola txikietako kideek balorean jarriko dute Mikel Goñi irakasleen koordinatzailearen esanetan, egungo egoerara osasuntsu heldzea ahalbidetu dieten hiru faktoreak: ikasgeletako adin aniztasuna, txikitasuna eta ingurua, landa eremua. “Hezkuntzarako eskubidearen

berme bezala ikusten dugu gure burua”, zioen Goñik aurreko astean Aginagan egin zuten jaialdiaren aurkezpenean. Berme hori kalitatezkoa izateko duten ardura nabarmendu zuen, eta horretarako “elkarlana ikusten dugu apustu estrategiko moduan”. Hezkuntza komunitateko kideen, administrazioaren eta herriaren artekoa.

Igandeko jaialdiaren aldarria gorapatuz, herri eta eskola txiki bat “ez dago bata ulertzetik bestea gabe” zioen Xabier Arregi Usurbilgo alkateak. Horregatik eskola txikien aldeko apustua indartzea eskatu zion administrazioari, eskolok bertan behera uzteko tentaziorik duenak, “eskolei ez ezik herri txikiei kalte egiten zaiela” ohartaraziz.

Aginagako eskolaren komu-

nitateak urtean zehar egin ohi duten lanak “Aginaga biziaren alde, gure umeen heziketa orokatu eta inklusiboaren alde” eta zehazki, azken urtean urtebete honetan eginiko lan ederra goraiatu eta eskertu zuen; “Aginaga osoa inplikatu da”. Auzolan hau aukera ezinhobea iruditzen zaio alkateari “herria kohesionatzeko ere”. Igandeko gonbita luzatu zuen. “Zatozte Aginagara, esku zabalik hartuko zaituztegu”.

“Guztion eskola”

Igandeko jaialdiko protagonistak eskola txikietako haurrak izango dira, “auzo eta herri bizi ematen dielako”, Aginagako ikastetxeko zuzendari Leire Salaberriaren esanetan. Igandeko jaialdiaren helburua nabarmendu zuen aurkezpenean. “Eskola txikien garrantzia aldarrikatzea da eta nola ez herri eta auzo txikiengan duen eragina azpimarratzea. Haurrak, aniztasunean, euskaraz, familia giroan eta naturarekin harremanetan hezten dira. Teknologia berrietan eguneratuak gaude eta kalitatezko heziketa eskaintzen dugu”. Herri eta auzoekin lotuak, txikiak, atseginak, erosoak... “Guztion eskola eta denontzat irekia dagoena”, aldarrikatuko dute igandean Aginagan.

Igandean Aginagan, familia giroko ospakizunak

Ekainaren 9ra arte

Aginagako Eskolari buruzko argazki erakusketa Aginagako Eliza Zaharrean.

Ekainak 9, igandea

Guneak:

- 1-Eskola: Aginaga Kaxkoa.
- 2-Baserria: Usurbildik Aginaga heldu berritan ezkerretara geratzen den lur eremua.
- 3-Sagardoa: Aginaga Sagardotegi atariko aparkalekua.
- 4-Errioa: Aginaga sagardotegi ondoko eremua.

Egitaraua:

- 10:00 Txistulariak (1, 2, 3, 4).
- 10:30 Herrera ekitaldia (1). Aginagako haurren ikuskizun koloretua.
- 11:15 Jokoak gune guztietan (1, 2, 3, 4).
- 13:00 Yolanda Arrieta ipuin kontalaria 2-5 urte artekoentzat ludotekan (1).
- 14:00 Bazkaria (1).
- 15:00 Mustaren Perkusio Tailerra (1).
- 15:00 Puzgarriak (3).
- 15:30 Lopene eta bere anima-

liak (2).

- 16:30 Sardiña Freskue antzerkia (1).
- 18:00 Apar festa (1).

Zerbitzuak: komuna, pardelak, txosna, bazkariak, denda, tike-tera, iturria, kontsigna.

Garraio zerbitzua publikoak baliatzeko deia

Doako autobus zerbitzua Aizpurua lantegikoaren eskutik: 10:00-12:00 Atxega jauregi ondoko Zumarte industriagunetik

Aginagara.

17:30-19:30 Aginagatik Usurbila itzultzeko autobus zerbitzuak. -Lurraldebusen ohiko autobus zerbitzuak. Zerbitzu bereziak orduotan: Zarautzetik Aginagara 9:25ean, 11:25ean eta 18:25ean. Arratsalde 16:50ean Aginagatik Donostiara. Donostiatik Aginagara 8:30etan, 10:30ean, 17:30etan eta 19:30ean. -Aparkaleku mugatuak: Aginaga Kaxko paretik Mapilera bidean aparkatzeko lau gune.

Herria eta eskola, eskutik helduta betidanik

Eskolako arkupeek “istorio asko gordetzen dituzte” adierazi dio NOAA!ri Blanca Bruño aginagarrak. 60. hamarkadaren bueltan egun Ariztitxo frontoiak duen kokagunean zegoen Aginagako eskola zaharraz ari zaigu. Zenbat eta zenbat haur igaroko ziren bertatik. Pentsa, Blancaren garaian “1963-64 ikasturteko argazki batean 60 bat neska agertzen gara maestra batekin. Helduenak 14 urte, txikiak 3-4. Mutilen ikasgelan ere beste hainbeste izango ziren”. Ohikoa zen garai hartan. “Etxe bakoitzean ume asko zen. 8 seme-alabako familia asko hemen inguruan”, Bruñok oroitarazi digunez.

Gogoan duenez, ikasliburu bakarra zuten goizeko klaseetarako; entziklopedia handi bat. “Han zetozen gai guztiak: hizkuntza, matematikak, erlijioa, geografia... dena liburu batean. Arratsaldeetan, laboreak izaten genituen; josi...”. Erdaraz egingo zutela uste du eskolan, baina gero Aginagako eskola utzi eta kolegiara joatean zera esaten zieten, “ez genekiela erdaraz hitz egiten, orduan hemen (Aginagan) ez dakit erdaraz edo euskaraz ikasten genuen”.

Blanca 9 urtera arte aritu zen ikasten Aginagako Eskolan. Igandean Gipuzkoako eskola txikien jaialdiaren erdigunean kokatuko den Aginagako eskolaren ibilbide luzearen garai bat marraztu digu Blancak, eta geroago bizitako beste hainbat une biziari dizkigute egun guraso diren ikasle eta irakasle ohi zenbaitek. Bruñok, Aginagaren erdigunean kokatua zegoen arkupeen eskola hura gogorarazi digu. “Kantinan bazkaltzen genuen, Aginagako emakume zenbaitek prestatutako bazkaria. Maistrarengana joaten ginen astean behin,



Aginagako eskolako ikasleak, San Estebango elizaren atarian. Argazkia 60ko hamarkadako da.

AINHOA BEREZIARTUA

“Bai familiek eta irakasleek doble inplikatu behar izan dute, eskola handiagoetan egitea egokitzen ez zaizkien lanak egin behar izan dituzte. Inplikazioa erabatekoa izan da”

dozena erdi bat arrautz, kilo bat patata eta pezeta batekin”.

Ikasgelan neskak gela batean, mutilak bestean ohikoa zen moduan garai hartan. Eskolatik kanpo ordea, “denok batera ibiltzen ginen, soka saltoan, kaniketan, arkumexur-rekin.. Garai hartako eskola ataria lurrezkoa zen. Eskolako arkupe horiek denerako balio zuten”.

Udako arratsalde partean ere giro bizia izaten zuten Aginagan. “Belarrak egin eta lehortzen zituztenean, hor festa izaten zen guretzat. Gainean saltoka ibiltzen ginen”, oroitu digu Blancak.

“Goitarrentzako” eskola

Berarekin denboran atzera gehiago egin dugu, eta arkupeen eskola haren aurretik ba omen

zuen beste kokagune bat, edo gehiago, Aginagako eskolak. “Lehen, Etxeberrin zegoen eskolara joaten omen ziren”, hori du entzuna Blancak. Eta “beherentzatzat”, Aginagako kaxkoaren bueltan bizi zirentzatzat soilik ez, Aginagako “goitarrentzatzat”, hau da mendi inguruan bizi zirenek ere bere eskola propioa izan zutela ere badiote. “Aiton amonei entzuna diet. Amona autopistak botatako Arburu baserrian jaio zen. Han egiten omen zuten “goitarren” eskola. Ikuiluan gela handi bat izan eta bertan ikasten omen zuten. Irakasleak bertan pasatzen omen zuten astea”, adierazi digu Ainhoa Bereziartuak.

Bere aurreko belaunaldiek bezala, Ainhoa ere Blancaren antzera, Aginagako arkupedun eskola hartan ikasitakoa da. Bere arbasoek ez bezala, neskak eta mutilak nahasian gela, baina haien antzera, adin ezberdinetakoak denak batera. HH-koak gela batean, LH-koak bestean. “Batzuetan txikiagoak zaintzea tokatzen zitzaigun, hurrengoan zu zinen txikiak eta zu zaintzen zintuzten”, Bereziartuaren esanetan. Egun ikastetxeko gurasoa da.

Gogoan du haurra zela hasi zirela biltzen Gipuzkoako es-

kola txikiak. “Gu eskolan gine-la egin zen lehenengo eskola txikien festa. Urtero joaten ginen. Aginagatik autobusa antolatzen zen eta aiton amon, guraso, ume... joaten ginen”.

Eskolarekiko langileek nahiz herriak zuten inplikazioa nabarmentzen du. “Eskola txikia izan eta lan gutxiago egongo dela iruditzen arren, bai familiek eta irakasleek doble inplikatu behar izan dute, eskola handiagoetan egitea egokitzen ez zaizkien lanak egin behar izan dituzte. Inplikazioa erabatekoa izan da”, dio Ainhoak.

Horren adibide gisa aipatu dio NOAA!ri, LH-n zela irakasleak bere borondatez, arratsaldeko klasea hasi baino ordu erdi lehenago proposatu ziela ikasleei, “bere borondatez ingelesa irakatsiko zigula”.

Edo goizean klasera heldu, kitarra hartu eta abestuz hasten zuten klase eguna. Hala kontatu digu Aitziber Arangurennek. “Hori ez dut beste inon bizi, oso polita zen”, oroitzen du. Eskola oso hurbilekoa zen, denak batera ibiltzen ziren. “Harremana askoz handiagoa zen, oso aberatsa. Familia bat ginen. Arratsaldero eskolan jolasten genuen, eskolan batera. Gero baten edo bestearen etxera”.

Irekia mantentzeko borrokan

Kontuan izan, egun 41 haur ditu Aginagako Eskolak; 19 HH-n, 22 LH-n. Aitziberrek ordea askoz ikasle gutxiagoko garaia ezagutu zuen. “Eskola osoan 8-9 izatera heldu ginen”. Eta garai hartan, eskola irekia mantentzeko borroka urteak izan ziren. “Gurasoek, eskola kideek asko borrokatu zuten. Eskola irekia mantentzeko borrokan batekin eta bestearekin eztabaidatzen nola aritzen ziren kontatzen zuten”.

Ordurako egun ikastetxeak duen kokagunean ziren. Eskolan hasi berritan bizi izan zituen, gerora frontoia eraikitzeko arkupedun eskola zahararen eraiste lanak. “Oroitzen dut nola egon ginen leihotik begira, eskola zaharra nola botatzen zuten ikusten. Halako tristura sortu zigun barruan”.

Igandeko jaialdiaren atarian oroitzen du, txikiak zirela nola festa hau beti Aginagan ospatzea nahi izaten zuten. “Ez zen izan posible garai hartan. Ilusio handia egin digu aurten Aginagan izateak. Lan asko ari dira egiten irakasle eta gurasoak, herrikoak ere laguntzen ari gara ahal den neurrian. Ia egun borobila ateratzen den”.



Aginagako eskola zabalik mantentzeko borroka ez da gauza berria. Argazkia 1976-77 ikasturtekoa da.

AROA ALKORTA

“Bolondresak eskatu izan ditugunean, laguntzeko prest agertu dira beti”

Eskolaz kanpoko bizitza suspertzen

Egunotan aipatu duten moduan, auzolan erraldoian murgildu da Aginaga azken urtean. Tartean, eskolako San Praixku Guraso Elkarteak. “Taldeen antolatu gara, lanak banatze aldera”, adierazi dio aldizkari honi, elkarteko kide Aroa Alkortak. Komunitate txikia izanik, jende gutxi eta lan han-

dia izan arren, “herritarrek ere lagundu digute. Bolondresak eskatu izan ditugunean, beti laguntzeko prest agertu dira”.

Haien ohiko jardunari batu zaio elkarteari, jaialdi honen prestaketa lana. Urtean zehar, eskolaz kanpoko ekintza ugari antolatzen ditu San Praixkuk; bi talde dituen pintura ikastaroa, psikomotrizitatea txikieneztat, dantza taldea ere badute, txokoak opor garaietan... Horrez gain, bai haur zein gurasoei begira ere aisialdi ekintza gehiago ere antolatzen dituzte urtean zehar. “Haurrak eskolatik kanpo Aginagan ego-

tea lortu nahi zen eta haurren arteko harremanak beren herrian bertan sendotzea. Bestela, eskola bukatu eta bakoitza bere etxera edo kanpora joango litzateke”. Eta helburua bete dute; “arratsaldeetan ume asko ibiltzen dira, txikiak eta helduagoak elkarrekin”, Aroaren esanetan.

Eskola indartua ikusten du egun, herria indartu beharra dagoela iruditzen zaio. Herriak eskola behar duen bezala, eskolak herria behar du. “Ume bakoitza jaio den lekuak behar du eskola. Orain etxeak behar ditugu”, adierazi dio Alkortak.

“Herriko umeak bertan heztea oso garrantzitsua da”

Ildo beretik mintzatu da baita Aitziber Aranguren. “Etxebizitzak eraikiko balituzte, nik uste aginagar asko bertan geratuko litzatekeela bizitzen. Nik zorte handia dut, bertan bizitzeko aukera dugu. Nire adin inguruko gazte askok gurasoekin bizitzeaz gain ez dute aukera askorik Aginagan bizitzeko. Joan egingo dira ziurrenik, eta beste herri batean bizitzen hasita gero zai-

la da bueltatzea”. Herritarrak, gazteak ere Udalarekin etorkizunerako hirigintza plan baten lanketan dira. “Ia aurrera ateratzeko aukera dagoen”, dio Aitziberrek.

Batez ere, azken urteotan zenbait komertzioaren itxieraren ostean, herri bizitza indartzen laguntzeko. Eskola, jubilatutako elkartarekin batera giltzarria izan da herri bizitzari eusterako orduan. “Aginagari bizitza asko

eman dio beti. Herriko umeak bertan heztea oso garrantzitsua da, herri giro horri bizirik eustea”, adierazi digu Blanca Bruñok. Ainhoa Bereziartuak, eskolarik gabeko Aginaga nolako litzatekeen ohartarazi digu. “Familia batek bere haurra ezin badu gertutasunean hezi, familia lotara joango da bakarrik auzora. Azkenean, bizitza bertan egiten ez baduzu, herri giro hori hiltzen da”.

“Denok inplikaturik askoz errazagoa izango da”

Gurasoak dira Blanca bezala, Ainhoa, Aitziber eta Aroa. Txikitan edo geroago eskolan jasotakoa bueltatzeko aukera dute orain. “Badakizu gauzak zenbat kostatzen den aurrera ateratzea. Badakizu baita, denok inplikaturik askoz errazagoa izango dela. Gutxi izanda, guk ez badugu egiten zeinek egingo du?”.

“Eskola handitua eta indartua topatu dugu eta horrek asko poztu gaitu”

“Eskertu nahi dugu eskolan egon ginenean eta azken bisitan jaso izan dugun harrera. Eskola handitua eta indartua topatu dugu eta horrek poztu gaitu”, adierazi diote NOAUA!ri, Miren Zaldúa, Jexux Begiristain eta Miren Rica Aginagako Eskolako irakasle ohiek, aginagarrak maiatzaren 25ean eginiko omenaldiaren ostean.

1985-97 urte artean aritu ziren Aginagan lanean. Gogoan dute, oposizioak gainditu eta lekualdatze lehiaketan Donostialdeko eskolatan izena eman eta Aginaga egokitu zitzaizela. Bertara heldu zirenean, “Eskolan giro lasaia eta euskalduna topatu genuen”. Zaldúa eta Begiristain HH eta LH-ko bi ikasgeletako ikasleez arduratu ziren 12 ikasturtez. Rica, astean zenbait egunetan laguntzaile lanetan izan zuten.

“Talde berean adin ezberdineko ikasleekin lan egitea erronka eta esperientzia berria zen guretzat eta egokitzapen aldia behar izan genuen. Pixkanaka erritmoa hartzen joan ginen”, oroitzen dute. Aliatu izan zuten komunitate osoa. “Ikasleen arteko elkarreragina eta kooperazioa garrantzitsuak ziren. Gurasoekin harreman onak eta gertukoak genituen”. Kanpo harremanak lagungarriak suertatu zitzaizkien, bai Usurbilgo ikastetxeekin, Aginagatik gero bertara ikastera zihoazenen jarraipena egiteko edota eskola txikiekin, “gure eskolako kezkak, funtzionamendua eta pedagogia aztertu eta hobekuntza proposamenak egiteko”. Oroitarazten dutenez, “proiektuak lan egiteko urratsak ematen eta geletan praktikan jartzen hasi ginen”.

Ibilbide profesional osoaren ia herena Aginagan eman zu-



Irakasle ohiek omendu zituzten maiatzaren 25ean. Miren Zaldúa, Jexux Begiristain, Miren Rica eta Gurutze Iztuetaekin izan gara solasean.

GURUTZE IZTUETA, IRAKASLE OHIA

“Herriak edo auzoak eskola txikia behar du bizirik egoteko. Eskolak bizia eta nortasuna ematen dio herriari”

ten. “Guretzat orokorrean esperientzia polita, aberasgarria eta oroitzapen onak” ekartzen dizkie. Eskola indartuta ikusten dute, eta horri eustearen garrantzia nabarmentzen dute. “Eskola eta auzo txikietan eskola publikoak gune funtsezkoak izan dira eta izango dira bertako biztanleak elkartzeko, prestatzeko, aniztasuna, deiak, esperientziak eta proiektuak partekatzeko, pertsonak eta ingurunea garatzeko...”.

“Auzoa asko inplikatzan zen gurekin”

Ildo beretik mintzatu zaigu baita, 2010eko irailean Aginagako eskolara heldu eta duela bi urtera arte eskolako irakasle eta zuzendari lanetan jardun zen Gurutze Iztueta Larreak ere. “Herriak edo auzoak eskola txikia behar du bizirik egote-

ko. Eskolak bizia eta nortasuna ematen dio herriari”. Zentzu horretan, igandeko eguna ondo irabazia du Aginagak Iztueta- ren ustez. “Zoriondu nahi dut egun lanean ari diren kideak. Lan handia eta zoragarria egiten ari dira Aginagako eskolaren alde”. Eskerrak eman nahi dizkie berarekin elkarlanean aritu zirenei, “intentsitate eta ikasketa handiko 7 urte oso politak izan ziren”.

Esperientzia berria berarentzat, eskola txikian lan egiten zuen lehen aldia zen. “Lucia Intxusta lankide eta lagunak erakutsi zidan funtzionamendua”. Aginagara heldu berritan oroitzen duenez, “xarma handiko lekua iruditu zitzaidan”. Jangelan 5 ume soilik izandako garaitik, eskolaren hazkuntza aroa bizi izan zuen Gurutzek. “2017an eskola utzi nuenean 28-29 familiarekin, 41 ikaslerekin joan nintzen”.

Elkarlanaren balioa azpimarratzen du. “Asko gozatu dut batez ere hartuemanekin. Eskolak herriari irekia egon behar duela iruditzen zait. Auzoa asko inplikatzan genuen eta auzoa ere asko inplikatzan zen gurekin”. Lantzen zituzten proiektuetan, “familiak hor genituen

gurekin batera lanean”. Aiton amonak errezetak egiten, garai bateko istorioak kontatzen...”.

Auzolanean eginiko proiektua

Auzolanean aurrera atera duten eskola, etorkizunean ere hala izatea espero du. “Garai batean ikasleak izan eta egun guraso direnek ere zenbat lan egiten duten eskola txikiarengatik. Egungo txikiek etorkizunean lekukoa hartuko dutela espero dut”.

Irakasle ohien bertsoak

Hainbat ikastetxetan ibilia naiz jada amaitua dut irakasle aroa orain ez dut egin beharrik programazioa.

Gaur bisitatu dut aspaldiko auzoa aurpegi ezagunak harrera beroa lehen ikaslea orain gurasoa denok daramagu bizitzaren arrastoa.

Eskola txikiak bizirik izan eta izango da gure leloa Eskola haundituta ekainaren 9rako festa antolatuta indartsu sumatu dut zuen auspoa.

Hau ez da adioa baina, ez dut luzatuko diskurtsoa. Esker mila aginatarrok! barka gaizki egindakoa eta etorkizuna izan dadila oparoa

Zumeta Arte Estudioa bisitatzeko aukera izango da datorren astean

Aurreko edizioan Txokoaldeko Txalapar-ta Txokoa ezagutzeko aukera izan zuten. Etumeta AEK euskaltegiak, Udalarekin eta NOAUA! K.E.-rekin elkar-lanean kudeatzen duen Mintzalagun egitasmotik txangoa antolatu dute ikasturte amaiera honetan, Zumeta Arte Estudio-ra oraingoan. Ekainaren 15ean izango da.

Goizeko 10:00etan finkatu dute Mikel Laboa plazan, Txikiardi aldera oinez abiatzeko hitzordua. Irteeran parte hartu nahi duenak ahalik eta azkarren, ekainaren 13a baino lehen eman dezala izena (doan) bideotatik: 607 609 379 edo usurbil@aek.eus. Antolakuntzak ohartarazi duenez, plaza mugatuak izango dira.

Euskaltegia, udan ere zabalik
Udan ere euskara ahotan hartu eta mintzapraktikan aritu nahi



Ekainaren 15ean bisitatu dute Zumeta Arte Estudioa. Dena den, ekainaren 13a baino lehen eman behar da izena.

duzentzat izen ematea zabaldu du Etumeta AEK euskaltegiak. “5-6 laguneko taldeak izaten dira; horiek osatzeko, kontuan hartzen ditugu parte-hartzaileen disponibilitatea, adina eta zaletasunak. Mintza taldeak bildu ahal dira kafetegian, tabernan, edo pasean

ibiltzeko... parte hartzaileek erabakitzen dute non eta noiz, beti lagun giroan”. Mintzalagunekin batera, udan ere euskara ikasi edo maila hobetzeko ikastaro eskaintza zabala prestatu du AEK-k. Informazio gehiagorako: 607 609 379 / usurbil@aek.eus

Hasiz Hazi beka deialdi berria

Kabiene Elkarlan Gunean diruz lagundutako urtebeteko egonaldia egitea ahalbidetzen duen beka deialdi berria iragarri du Usurbilgo Udalak. 2019. urtean enpresa proiektu berri bat duen Beterri-Buruntzako udalerriren batean erroldatua dagoen ekintzaileari zuzendua dago deialdia.

“Elkarlan gune hau, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izango da. Bekadunek bertan lanean ari diren kideen esperientziatik ikasi ahal izango dute eta harreman-sare indartuago



Eskabideak aurkezteko irailaren 30era arteko epea izango dute interesdunek.

batekin ekin ahal izango diote lanari”. Horrekin batera, “Beterri-Buruntza ekinean, enpresak sortzen laguntzeko aholkularitza zerbitzuaz baliatu ahal izango dira”.

Informazio gehiago, maiatzaren 31ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo udaletxean. Eskabideak aurkezteko irailaren 30era arteko epea izango dute interesdunek.

Uztailaren 6an, Uxue Trail Usurbilen

Sentsibilizazioa eta kirola uztartuko ditu, Phe-lan-McDermid sindromea duen Uxue Usurbilgo gaztetxoaren alde estreinakoz uztailaren 6rako Usurbilen antolatzen ari diren mendi lasterketa solidarioak. Goizeko 9:00etan frontoitik abiatuko den ekimenerako izen ematea kronoak.com atarian bidera dezakezue.

Bi ibilbide aukeran

Andatza mendi ingurua zeharkatuko duen 20 eta 11 kilometroko ibilbide bana izango da aukeran. Korrika egin gabe ere dortsol solidarioa eskuratu ahal da. Proba amaieran, oparienez zozketa iragarri dute parte hartzaileen artean.

Usurbilgo jaietako

Bertsopaper Lehiaketa

Bota Punttubak eta Usurbilgo Udalak antolaturiko 43. edizioan parte hartzeko epeak zabalik segiko du ekainaren 21era arte. 16 urtetik gorako usurbildarrei zuzendua dago txapelketa.

Postaz bidali lanak

Lana (originala eta hiru kopia) egilea nor den adierazi dezakeen daturik gabe aurkeztu, kartazal itxi batean parte hartzailearen datu pertsonalak. Guztia helbide honetan:

Usurbilgo Udala
(XLII. Bertsopaper Lehiaketa)
Joxe Martin Sagardia plaza.
Usurbil 20170.

6-10 bertso artean

Bertsopaperek 6-10 bertso artekoak izan beharko dute, inoiz argitaratu gabeak.

Sariak:

- Lehen saria 200 euro eta oroigarria.
- Bigarrena, 150 euro.

II. Adikzioen Tokiko Plana izango du Usurbilek, 2023ra arte

2013az geroztik lau urtez indarrean izan den Mendekotasunen Prebentziorako Usurbilgo lehen udal plana amaituta, Agipad-ek Adikzioen Tokiko bigarren plana landu du Udalarentzat. Aho batez onartu zuen udalbatzak maiatzaren 23an egin zuten legealdiko azken osoko bilkuran.

Bozkatu aurretik Xabier Arregi alkateak zioenez, gaiak “benetan kezkatzen gaitu. Behar beharrezkoa da indarrak batu eta elkarlanean aritzea”, gaineratu zuenez, “arazo honi erantzun bateratua emateko”.

Plan honen jarraipena egiteko mahai bat osatuko da

Aipatzekoa da udal plan honen diseinuan herriak izan duen eskuhartzea. Eztabaida eta hausnarketa prozesua bideratu zuen iaz, herriko hezkuntza eta aisialdi eremuetako hainbat eragilerekin.

Helburu argi bat du planak, ongizate saileko zinegotzi Jone



Plan honen jarraipena egiteko mahai bat osatzea aurreikusi da.

ADIKZIO PLANA

Landu beharreko hainbat gai aurreikusten dira: sustantzia ezberdinekiko dagoen arrisku pertzepzio baxua, sustantzien eskuragarritasuna...

Urdanpilletak argitzen zuenez, “sektore ezberdinen koordinazio eta planifikazioa da, mendekotasunei dagokienez, esku-hartzeetan eraginkortasun

eta efizientzia indartu eta honek emaitza positiboak eman ditzan prebentzio arloan”. Azken helburua, argi dago: “herritarren bizi kalitate hobea lortzea”. Landu edo hausnartu beharreko hainbat gai aurreikusten dira esparru honetan: sustantzia ezberdinekiko dagoen arrisku pertzepzio baxua, sustantzien eskuragarritasuna, jokaerazko adikzioen aurrean egiten den esku-hartzearen handitzea... Plan honen jarraipena egiteko mahaia osatzea aurreikusten da.

Gaztelekuko udako ekimenak

12-16 urte arteko gazteei zuzendutako udako ekintzak ekainaren 20an abiatuko ditu Gaztelekuak, DBH3koekin ETB-ren “Gure kasa” saiora egingo duten txangoarekin hain zuzen. Hortik aurrera, udako solstizioa, txangoak, tailerrak... eskaintza zabala prestatu dute. Egun osoko txangoetan parte hartu nahi dutenek guraso baimenaren orria bete beharko dute aurrez. Gaztelekuan jaso beharko da.

Informazio gehiagorako:

Gaztelekuan (zabalik den egunetan, 16:30ean), gaztelekua@usurbil.eus / 943 371 050.



Ekainaren 20an Gure Kasa telebista saiora doaz. Argazkia: Gaztelekuak.

Aldaketak egin dira bazterkeria arriskuan direnentzako etxebizitza babestuen hitzarmenean

Urte amaieran Beterri-Buruntzan bazterketa egoeran diren pertsonentzako etxebizitza babestuak emateko udalbatzak onarturiko hitzarmena aldatzea erabaki zuten udal ordezkariak, maiatzaren 23ko legealdiko azken osoko bilkuran.

Bazterketa egoeran diren pertsonentzako etxebizitza babestuak emateko lau urteko hitzarmena eta araudia onartu zituen udalbatzak aho batez, abenduaren 20ko osoko bilkuran. Erabakion baitan, Hernanin eta Lasarte-Orian gizarte inklusiorako alojamendu bana eskaintzea aurreikusten zen; Hernanikoa, harrera pisua izatea proposatu zen, erabiltzaileak lehen sei hilabeteak bertan igarotzeko. Hurrengo sei hilabeteetarako Lasarte-koa, emantzipaziorako.

Egitasmo honekin, “gizarte bazterketarako arriskuan aurkitu daitezkeen herritarren egoerak ez areagotzea, trantsizio-prozesuak ahalbidertzea, eta ahal den neurrian, egoera normalizatzeke bideak jorratzeko aukerak gauzatzea” zen asmoa.

Hitzarmenok sei udalek osoko bilkuretan onartzea adostu zuten. Tartean Usurbilgoak. Lasarte-Oriak ordea akordioan atzera egin eta moldaketak egitea eskatu zuen. Ondorioz, lanok bideratu artean, bigarren etxebizitza Andoaingo Udalak jarriko du, “Lasarte-Oriako Udala hitzarmenara atxekitu bitarte”. Egoera berrira egokitutako lau urterako hitzarmen berri bat landu dute bost udalek. Maiatzaren 23an Usurbilen eginiko osoko bilkuran aho batez onartu zen hitzarmena.

Kiroldegiko igerileku eraberritua, irekitzear

Usurbilgo Udalak zabal- dutako irudietan ikus daitekeen moduan, nabarmen itxuraldatu da Oiardo Kiroldegiko igerilekua. Baina ez da aurpegi garbiketa soila izan. Joan den udazkenetik bertan bideratzen ari diren lanak sakonekoak dira, amaitzear dituzte.

Gogoan izan, igerileku txikia handitu eta irisgarri bilakatu dute, gunea bera eta zaharkituak zeuden azpiegiturak berri dituzte. Proben fasean dute igerilekua, zabaltzear, Usurbilgo Udalak berri eman duenez. "Amaitzear daude Oiardo kiroldegiko igerilekuko lanak. Egunotan frogak egiten dabilta, eta ahal bezain laster, irekiko dira", Udalaren esanetan. Eta ireki bezain laster abiatuko dira baita igerilekuko ikastaroak.



Ireki bezain laster abiatuko dira igerilekuko ikastaroak.

Udako ikastaroak

Oiardo Kiroldegiak plazaratu du jada uda parterako ikastaro eskaintzaren gaineko informazioa. Izerdi patsetan amaitzeko hamaika proposamen dituzte ate joka dugun uda parterako. Izen ematea zabalik dago saio guztiorako:

- Haurrentzat: igerilekuko ikastaro eskaintza zabala, Kirol Txokoa, eskalada.
- Helduentzat: igeriketa ikastaroak, pilates, GAP + tonifikazioa, Bodyfit, 3. adina, stretching, spinning.
- Haur eta helduentzat: igeriketa entrenamendu pertsonala.

Ilunpe nagusitu zen Berria Txapelketan

Ilunpe pilota taldea 2-1 nagusitu zen igandean Usurbilen jokatu zen kanporaketan. Emaiz horri esker, Berria Txapelketaren finalerdietara sailkatzea lortu du Azpeitiko taldeak. Usurbilgo Pagazpek lan txukuna osatu du eta finalerdien atarian erori da.

Pagazpe-ilunpe kanporaketa

Kadeteak

Garaiar - Albéniz 10
Egiguren - Elosee 22

Jubenilak

Galarraga - Iruretagoiena 12
Alberdi - Larrañaga 22

Helduak

Santxo - Exposito 22
Apezetxea - Murgiondo 10

Errifaren zozketan 971 zenbakia suertatu zen irabazlea. Saritua Sarita Josefina izan zen, Saizar sagardotegian bi otordurekin.



Pagazpek hirutik bi partida galdu zituen Ilunperen aurka. Hala ere, txapelketa txukuna osatu du.

"Ezkaabako ihesaldia"

txangoa igandean

Ezkaabako gotorlekutik Sai-gots herrira txangoa antolatatu du Andatza M.K.K.-k igandera, ekainaren 9rako. Izen ematea itxita dago. Izena emana duten mendizaleentzako oharra. Igande goizeko 7:00etan finkatu dute Oiardo Kiroldegitik autobusez abiatzeko hitzordua.

Pirinioetako irteera

Gogoan izan, zabalik dagoela bost hirumilako egiteko asmoz, Andatza M.K.K.-k irailaren 21etik 22ra Pirinioetako Estos bailarara antolaturiko txangoan izen emateko epea. Informazio gehiago: andatza.com

Mendi orientazio ikastaroa

emakumeentzat

Patri Espinarrek gidatuta, maiatzaren 11tik ekainaren 15era, larunbatero, 9:30-13:30 artean. Lehen eta bigarren saioak Potxoenean egingo dira, gainerako lauak mendian.

Izen-ematea:

parekidetasuna@usurbil.eus
943 377 110.



Patri Espinarrek gidatzen du ikastaroa.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza s

606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

urdaintzi@euskainet.net 649 43 54 75
IT-ak 943 36 72 64
egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrenatzeaz. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m².

Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuzko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Etxebizitza alokairuan, Santuenean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informeak ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803



Zorionak Hodei!

Ondo ospatu eta pasa zure eguna. Muxu asko familiaren partez.

Heriotzak

Augusto Erostarbe Feito

78 urterekin hil zen maiatzaren 30ean Usurbilen



LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak administrari-dendari baten beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interesatuza bazeu, deitu 943 361 114 edo bidali zure CV alkartasuna@usurbil.com

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrik emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrik emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldia@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegian, info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Emakume bat, interna edo externa bezala lanean aritzeko prest, baita orduka ere. Esperientziarekin: 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta espe-

rientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake.

637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitalean, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo

externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsaldez. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Seguitan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

BESTELAKOAK

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrik jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesez arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat baldugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Iزارo

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gatzetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburukak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Genero-egonak.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Sabadell/Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 06 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 07 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 08 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 09 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astelehena 10 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 11 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 12 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ekainak 06 - Ekainak 16

Osteguna 13 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 14 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 15 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 16 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

07 ostirala

- **Zirimaran izen emateko epearen irekiera.** Antolatzaileak: Udarregi, Udala, NOAUA!
- **Indarkeria matxistaren aurkako gidaren lanketa saioa** 18:00etan Potxoenean.
- **Ibai Marin eta Etxe kontzertuan** 22:30ean Sutegin. Sarrera, 8 euro.

08 larunbata

- **Mendi orientazioari buruzko ikastaroa.** 9:30etik 13:30era Potxoenean.

09 igandea

- **Andatzakoen iteerra: Ezkabako ihesaldia, 1. etapa** 7:00etan autobusez, Kiroldegitik (izen-ematea ekainaren 5ean amaitu zen).
- **Gipuzkoako Eskola Txikien jaia** Aginagan Egun osoko egitaraua.

Etxe eta Ibai Marinekin kontzertu gaua Sutegin

Bi kantariak disko bana plazaratu berri dute. Euskal Herrian barrena eskaintzen ari diren bira Sutegin porturatuko da ostiral honetan. 22:00etan irekiko dituzte aretoko ateak. Sarrerak 8 eurotan eskuratu ahalko dira.

Aurreko astean Etxek adierazi zigunez, “aspaldiko lagunak gara Ibai eta biok. Nik Nabarin jotzen nuenean eta Ibaik Hiran Nabariren maketan kolaboratu zuen. 2003an, emanaldi batzuk elkarrekin egin genituen. Gero bakoitzak bere bakarkako bidea egin dugu. Bion arteko harreman onetik eta estilo antzeko samarretik sortu da kontzertuok batera emateko ideia”.



Argazkian, Etxe kantaria. Ibai Marinekin batera arituko da ostiral honetan Sutegin.

Aisialdi eta jai giroko eraso sexisten aurkako gida landuko dute ostiral honetan Potxoenean

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak deituta, ekainaren 7an (ostirala) 18:00-20:00 artean Potxoenean. Sexu eraso eta eraso matxisten prebentzioan eta arretari dagokionean, kontzientzia soziala eta sentibilizazioa handitu eta indarkeria mota honen aurkako erantzuna hobetu eta koordinatzeko gida bat landuko da,

gero herri mailan zabaltzeko. Formazio saioa izango da, irekia edonorentzat, modu berezian, mugimendu feministari, herri eragileei, aisialdikoei edota jaietako antolatzaileei zuzendurikoa.

- Ekainak 7 ostirala.
- 18:00-20:00.
- Potxoenean.

Datozenak

Ekainaren 13an osteguna, Udajolaseko guraso bilera

Udajolasen izena eman dutenek hitzordua dute datorren ostegunean Sutegin. Uztailaren 3tik 30era antolatutako udaleku irekien gaineko argibideak emango zaizkie gurasoei. Antolatzailea: NOAUA! K.E.

Film proiektzioa frontoian, emakume talde batek antolatua

Datorren ostegunean, ekainak 13, pin-txo-pote feministaren bigarren edizioa ospatuko dute. Ondoren, *La Chica Danesa* (2015) filma eskainiko dute frontoian. Filmak gertaera erreal bat du oinarrian. Einar Wegener margolaria emakume sentitzen zela jabetu zen. Historiako lehen sexu-aldaketa kasuan bilakatu zen bere emaztearen babes eta laguntzaz.



Ekainaren 13an osteguna, *La chica danesa* eskainiko dute 21:00ak aldera frontoian.



SALEROSKETA & ALOKAIURAK

G15 GIPUZKOA HIGIEZINA ELKARTEA

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL 688 739 733 info@g15usurbil.com

ETXETRESNEN 

KONPONKETAK eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

 645417665

XABIER Usurbil

Patri

Patri 2019
 jaietxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

AURREMATRIKULA

EKAINAK
3 - 14

DOKUMENTAZIOA -

- NAN -
- Espediente akademikoa

☎ 943364600



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

www.lhusurbil.eus

31 ETXEBIZITZA BERRI UGARTONDON



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukaldea



Pertsonalizazioa

943 30 29 20

www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude



Urbil eta Garbi

Ingurumena zaintzea guztien erantzukizuna da.
Eta Urbilen urteak daramazkigu neurriak hartzen.



ATEZ ATEKO BIRZIKLAPENA,
EGUNERO BERRIKUSTEN
DITUGU PAPERONTZIAK
BIRZIKLAPEN EGOKIA
ZIURTATZEKO.



LED-LANPARAK GURE
INSTALAZIOETAN ENERGI-
KOKI ERAGINKORRAGOAK
EGITEKO.



KARGA-PUNTUAK AUTO
ELEKTRIKOENTZAKO ETA
BIZIKLETA APARKALEKUAK.



KANILAREN TXORROTA
ETA ESQUAK LEHORTZEKO
MODU ERAGINKORRA-
GOAK, URA, PAPERA, ETA
ENERGIA AURREZTEKO.

#UrbilKonpromisoa

Gure ekintza guztiak urbil.es web-orrian ikusi



urbil.es